**EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO Nº 6/14 DE 27 DE NOVIEMBRE DE 2014.**

**ACTA**

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA, DE LA SESION ANTERIOR, EXTRAORDINARIA Nº 4/2014, DE 14 DE NOVIEMBRE DE 2014.**

[…]

D. Juan Carlos Hurtado Llaguno (E.A.J.- P.N.V.), observa que, aparece como asistente, cuando no asistió a la sesión extraordinaria.

Se ratifica, con la observación del sr. Hurtado, el Acta de la última Sesión Extraordinaria nº 4/2014, de 14 de noviembre de 2014.

**PARTE RESOLUTIVA.**

**2.- DAR CUENTA DEL INFORME ECONOMICO – PRESUPUESTARIO SOBRE LA EJECUCION DEL PRESUPUESTO AL TERCER TRIMESTRE DEL 2014.**

[…]

Dada cuenta al pleno, se dan por enterados, sin observaciones.

**3.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACION DE LAS RETRIBUCIONES POR COMPLEMENTO ESPECIFICO DE DOS PUESTOS DE TRABAJO DE AUXILIAR ADMINISTRATIVO TRAS LA APROBACION, DE LA VALORACION DE DOS PUESTOS DE TRABAJO, (DOS AUXILIARES ADMINISTRATIVOS), COMO CONSECUENCIA DE ACUERDO ADOPTADO POR EL PLENO EN FECHA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2014.**

[…]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación:

Modificar las actuales retribuciones, por el concepto de complemento específico, de los dos puestos de auxiliares administrativos […]

**4.- APROBACION DEFINITIVA, SI PROCEDE, DE LA DENOMINACION DE LA VIA “URBANIZACION PINTOR ISMAEL FIDALGO” AL GRUPO SAN PEDRO 2 DE NUEVA CONSTRUCCION.**

**[…]**

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar de forma definitiva la propuesta de resolución presentada.

**5.- AUTORIZACION, SI PROCEDE, PARA CONCEDER LICENCIA URBANÍSTICA, A Dª TOMASA AURORA BARON, SOLICITADA PARA LA CONSTRUCCION DE SOLERA DE HORMIGON, EN LA PARCELA DEL MONTE DE UTILIDAD PUBLICA Nº 120 DE SOPUERTA, CONCEDIDA EN EL PARAJE CALLEJUELA A LA SOLICITANTE.**

**[…]**

Se acuerda por unanimidad de los asistentes:

Autorizar la ocupación del terreno concedido a Dª Tomasa Aurora Barón, con una construcción nueva, destinada a solera de hormigón para servicio de comedero de caballos, condicionada al cumplimiento de las condiciones impuestas por el Servicio de Montes, del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Una vez sean aceptadas y suscritas las condiciones a cuyo cumplimiento se sujeta la autorización, por la solicitante Dª Tomasa Aurora Baron, se tramitará la licencia urbanística de conformidad con el procedimiento legalmente establecido para ese tipo de licencias.

**6.- APROBACION INICIAL, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACION DE LAS CONCESIONES DE LAS PARCELAS CONCEDIDAS POR EL AYUNTAMIENTO EN EL MONTE DE UTILIDAD PUBLICA Nº 120 DE SOPUERTA, POR MODIFICACION DE LAS SUPERFICIES QUE CONSTAN EN LA ACTUALIDAD, CONFORME A LA NUEVA MEDICION DIGITAL REALIZADA.**

[…]

Por el alcalde- presidente, se reparte copia a todos los asistentes, a la sesión del Pleno, de la nueva propuesta, que se somete directamente al Pleno, aclarando que en el expediente si había una propuesta; pero que se sustituye por la que presenta en este acto, dando lectura el alcalde a la nueva propuesta, quedando como sigue:

*"Aprobar la modificación de las condiciones de las concesiones de las parcelas, concedidas por el Ayuntamiento en el Monte de Utilidad Pública nº 120 de Sopuerta, por modificación de las superficies que constan en la actualidad, conforme a la nueva medición, digital realizada. Las parcelas con la nueva superficie formaran parte del Inventario Municipal.*

*Se publicará la aprobación inicial en el Boletín Oficial de Bizkaia, por un período de veinte días. Si transcurridos los veinte días, no hubiera alegaciones se considera aprobado definitivamente.*

*Se suspende la ejecutabilidad respecto a las alegaciones presentadas hasta en tanto no se resuelvan por el Ayuntamiento, dando traslado para su información al Servicio de Montes, y una vez informadas se trasladará al Pleno para su aprobación".*

[…]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la anterior propuesta.

**7.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA DECLARACION INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL 25 DE NOVIEMBRE, "DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES".**

Por EUDEL se ha remitido el Modelo de Declaración Institucional del 25 de noviembre, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES, y que se somete al Pleno dando lectura a la misma:

"El 25 de noviembre es el 'Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres'. Con ese motivo, el Ayuntamiento de Sopuerta muestra su firme repulsa a todas las expresiones de violencia sexista, que son fruto de la desigualdad existente entre mujeres y hombres.

Las agresiones y los comportamientos sexistas no son conductas aisladas de algunos individuos, sino que son parte de un sistema, vigente en todo el mundo, que hace posible el ejercicio de la violencia contra las mujeres desde la infancia y a lo largo de toda su vida. Son prácticas violentas y machistas de diverso alcance, pero todas atentan –directa o indirectamente- contra la integridad, libertad y capacidad de las mujeres. Desgraciadamente, todavía se detectan en la sociedad muchas actitudes y comportamientos que permiten y legitiman las agresiones a las mujeres; por ejemplo, el cuestionamiento de la veracidad de las denuncias interpuestas por chicas y mujeres que han sufrido agresiones, las declaraciones públicas hechas desde los espacios de poder que vienen a banalizar y justificar esa violencia mientras le quitan importancia, o el tratamiento frívolo y sensacionalista que algunos medios de comunicación hacen de la misma, entre otros.

Las instituciones públicas debemos poner en el centro de nuestra actividad la erradicación de todo tipo de expresiones de violencia sexista. Para ello, es necesario que desarrollemos programas estables y continuados en el tiempo que nos acerquen a la consecución de una sociedad libre de violencias, dotándolos de recursos económicos y personales.

En nuestro compromiso activo de erradicar la violencia en todas sus formas, apostamos firmemente por que se trabaje desde la prevención de la violencia sexista

con las y los jóvenes de nuestro municipio, ya que la incidencia de la violencia machista en esta población es una realidad que nos preocupa. Por ello, un año más, seguimos trabajando con la gente joven en el marco del programa Beldur Barik.

Es aquí donde las instituciones públicas tenemos el deber de desarrollar y reforzar las políticas públicas de igualdad, lideradas desde las áreas de Igualdad, procurando sumar fuerzas con políticas estratégicas también desde las áreas de Educación y Juventud, en el marco del programa de prevención de la violencia sexista, Beldur Barik, con el objetivo final de desarrollar políticas que, desde todos los ámbitos, faciliten el empoderamiento de las jóvenes y fomenten su capacidad de respuesta ante situaciones de desigualdad y violencia. Dichas políticas deben fomentar, igualmente, un trabajo y reflexión con los chicos sobre su protagonismo y la responsabilidad de ellos en la violencia machista, sus dificultades para identificar qué es una agresión y qué no, su participación activa en las mismas o su papel como espectadores pasivos ante una agresión.

En el trabajo en estas estrategias Beldur Barik irá gestando una sociedad que no permita ni naturalice discursos que muestren permisividad a la violencia, que la justifiquen o que banalicen las agresiones y las conductas discriminatorias hacia las mujeres.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Sopuerta, se compromete a:

1. Desarrollar los contenidos del programa Beldur Barik, como herramienta para trabajar en sensibilización y prevención de la violencia machista con la juventud.
2. Desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia machista.

E invita a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad de mujeres y hombres, incluido el rechazo a cualquier manifestación de violencia o discriminación sexista/machista.

Finalmente os anima, en especial, a las chicas y chicos jóvenes, a participar activamente en los diferentes actos convocados con motivo del 25 de noviembre, ‘Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres”.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar el texto de la Declaración.

**8.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL CONVENIO A FIRMAR CON UDALBILTZA.**

Se presenta un modelo de Convenio a suscribir con el consorcio UDALBILTZA, para el impulso de Actividades enmarcadas dentro de los objetivos estatutarios del Consorcio Udalbiltza, por el que el Ayuntamiento de Sopuerta se obliga a realizar una

aportación de 6000€, con cargo al presupuesto del 2014, a abonar a la firma del Convenio.

[…]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, aprobar el Convenio para el próximo año 2015, autorizando al alcalde a suscribir el Convenio con Udalbiltza.

**9.- RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL, SI PROCEDE, DE OBLIGACIÓN DE PAGO DE SUBVENCIÓN A FAVOR DE ASOCIACIÓN DE MUJERES GAURKO EMAKUMEAK.**

El Alcalde- Presidente, propone, al Pleno modificar el enunciado del asunto incluído en el orden del día, pidiendo disculpas por el error, para que el título sea:

> **9.- APROBACION, SI PROCEDE, DE RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIÓN DE PAGO A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN GAURKO EMAKUMEAK.**

[…]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación aprobar la propuesta presentada al Pleno por la Alcaldía.

**PARTE DEDICADA A CONTROL.**

**10.- DAR CUENTA DE LOS RECURSOS CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVOS, INTERPUESTOS CONTRA EL AYUNTAMIENTO, PENDIENTES DE RESOLUCION A ESTA FECHA.**

[…]

Dada cuenta se dan por enterados.

**11.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS DESDE EL ULTIMO PLENO.**

**[…]**

Dada cuenta se dan por enterados.

**MOCIONES**

**12.- APROBACION, SI PROCEDE, DE MOCION PRESENTADA POR Dª EDURNE SANTAMARINA, EN REPRESENTACION DEL GRUPO BILDU, A FAVOR DEL DERECHO A LA ESCUELA PUBLICA EN SOPUERTA.**

Se inicia este punto dando lectura íntegra por la Secretaria- Interventora al texto de la moción:

"MOCIÓN A FAVOR DEL DERECHO A LA ESCUELA PÚBLICA EN SOPUERTA:

Desde el año 2011, los padres y madres y el ayuntamiento de Sopuerta vienen solicitando al Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura la introducción en la red pública de la etapa de Educación Primaria de la escuela *"La Baluga"*.

Durante estos años las reuniones y el trabajo han sido constantes para intentar buscar una solución, y en ese sentido los padres y madres siempre han contado con el apoyo y la colaboración del Ayuntamiento de Sopuerta.

Cuando se abrió la inscripción de alumnos para el curso 2014-2015, algunos padres y madres eligieron La Baluga para inscribir a sus hijos e hijas con el propósito de que cursaran la Educación Primaria en dicho centro, solicitando al Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura la consideración de su demanda.

La escuela La Baluga de Sopuerta dispone del espacio suficiente, está adaptada, y además el Gobierno Vasco y el ayuntamiento realizó en su momento una gran inversión en dicha construcción. Hay que señalar que en dicho centro se imparte la Educación Infantil, y que el centro dispone asimismo de los medios necesarios para impartir la Educación Primaria.

Sin embargo, con el paso de los meses el Departamento de Educación no ha ofrecido ninguna solución, sigue sin asegurar la oferta pública de educación primaria en la escuela La Baluga, en Sopuerta.

El Obispado de Bizkaia no para de poner trabas ante esta solicitud, y en la práctica está entorpeciendo la posibilidad de llegar a un acuerdo, negando a muchas familias un derecho que les corresponde.

La gravedad de la situación generada en Sopuerta ha llevado a su alcalde y a dos de los padres afectados, a tomar la difícil decisión de iniciar una huelga de hambre para exigir sus legítimos derechos a una educación pública de calidad, huelga a la que se ha puesto fin tras el compromiso del departamento de educación de abrir un cauce de diálogo con los familias afectadas.

Sopuerta exige su derecho a la escolarización en la escuela pública. Nada más que eso.

Por todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN:

1.- Exigimos al Gobierno Vasco que garantice en Sopuerta el derecho a la escolarización, en el ciclo de primaria en la escuela pública. Que para este curso, y eventualmente, abra en la escuela La Baluga un aula desplazada de la escuela Mimetiz de Zalla para todos los alumnos que han realizado la petición, y que durante

los próximos meses busque un acuerdo entre todas las partes que lleve a la búsqueda de una solución definitiva que satisfaga las necesidades de Sopuerta.

2.- Exigimos al Obispado de Bizkaia que respete la decisión de las familias que han elegido la escuela pública y no ponga más trabas al ejercicio de sus derechos.”

[…]

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación:

Aprobar la moción presentada por la representante de Bildu, Dª Edurne Santamarina, y

1.- Exigimos al Gobierno Vasco que garantice en Sopuerta el derecho a la escolarización, en el ciclo de primaria en la escuela pública. Que para este curso, y eventualmente, abra en la escuela La Baluga un aula desplazada de la escuela Mimetiz de Zalla para todos los alumnos que han realizado la petición, y que durante los próximos meses busque un acuerdo entre todas las partes que lleve a la búsqueda de una solución definitiva que satisfaga las necesidades de Sopuerta.

2.- Exigimos al Obispado de Bizkaia que respete la decisión de las familias que han elegido la escuela pública y no ponga más trabas al ejercicio de sus derechos.”

Notificar el presente acuerdo al Gobierno Vasco, y al Obispado de Bizkaia.

**<u>RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>**

**13.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**2014ko AZAROAREN 27ko 6/14 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA**

**<u>AKTA</u>**

**1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA (2014ko AZAROAREN 14an EGINIKO 4/2014 ZENBAKIKOA).**

[…]

Juan Carlos Hurtado Llaguno jaunak (EAJ- PNV) ikusi du bertaratu gisa agertzen dela, baina ez zela ezohiko bilerara joan.

Hurtado jaunak esandakoarekin, berretsi egin da 2014ko azaroaren 14an eginiko 4/2014 zenbakiko azken ezohiko bilera.

**<u>EBAZPENAK.</u>**

**2.- 2014ko HIRUGARREN HIRUHILEKOKO AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO EKONOMIA- ETA AURREKONTU-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

[…]

Udalbatza Osoari horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira eta ez dute oharpenik egin.

**3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN BI LANPOSTUREN OSAGARRI ZEHATZAGATIKO ORDAINSARIAK ALDATZEA, BI LANPOSTUREN (BI ADMINISTRARI LAGUNTZAILE) BALORAZIOA ONETSI ONDOREN, 2014ko IRAILAREN 25eko OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIAREN ONDORIOZ.**

[…]

Korporazio osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Egungo ordainsariak aldatzea, osagarri zehatza dela eta, administrari laguntzaileen bi lanpostuei dagokiena […]

**4.- BEHIN BETIKO ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SAN PEDRO 2 ETXADI ERAIKI BERRIARI "PINTOR ISMAEL FIDALGO URBANIZAZIOA" BIDEA DEITZEA.**

**[…]**

Bertaratuek aho batez onetsi dute aurkeztutako ebazpen-proposamena behin betiko onestea.

**5.- BAIMENA EMATEA, BIDEZKOA BADA, TOMASA AURORA BARON ANDREARI HIRIGINTZA LIZENTZIA EMATEKO, HAIN ZUZEN, HORMIGOIZKO OINARRIA ERAIKITZEKO SOPUERTAKO 120 ZENBAKIKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIKO LURSAILEAN. AIPATU LURSAILA CALLEJUELA INGURUAN EMAN ZITZAION ESKATZAILEARI.**

**[…]**

Beraz, bertaratuek, aho batez, honako hau erabaki dute:

Tomasa Aurora Barón andreari baimena ematea lursaila okupatzeko eraikuntza berriarekin. Eraikuntza horretan hormigoizko oinarria jarriko da zaldientzako azpila zerbitzurako, betiere Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak jarritako baldintzak betetzekotan.

Baimenaren baldintzak diren betekizunak onartu eta sinatu ondoren, Tomasa Aurora Baron eskatzaile andreak hirigintza-lizentzia izapidetuko du mota hauetako lizentzietarako ezarritako legezko prozedurarekin bat etorriz.

**6.- HASIERAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDALAK SOPUERTAKO 120 ZENBAKIKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIAN EMANDAKO LURSAILEN LAGAPENA ALDATZEA, GAUR EGUN AGERTZEN DIREN AZALERAK ALDATU EGIN BAITIRA, EGINDAKO NEURKETA DIGITAL BERRIAREKIN BAT ETORRIZ.**

[…]

Alkate-udalburuak Udalbatza Osora bertaratutako guztiei proposamenaren kopia banatu die, eta hori zuzenean Udalbatza Osoan jorratu da. Hala, azaldu dute espedientean bazegoela proposamen bat, baina ekitaldi honetan aurkeztu denak ordezkatuko duela. Ondoren, alkateak proposamen berria irakurri du, eta honela geratu da:

*"Onestea Udalak Sopuertako 120 zenbakiko erabilera publikoko mendian emandako lursailen lagapena aldatzea, gaur egun agertzen diren azalerak aldatu egin baitira, egindako neurketa digital berriarekin bat etorriz. Azalera berria duten lursailak Udal Inbentarioan sartuko dira.*

*Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hasierako onespena, zehazki hogei egunez. Hogei egunak igaro ondoren alegaziorik egon ezean, behin betiko onetsitzat joko da.*

*Bertan behera geratu da aurkeztutako alegazioen inguruan ebazpenak emateko aukera, harik eta Udalak ebazten dituen arte. Horrela, Mendi Zerbitzuari horren berri eman zaio jakitun egon dadin, eta behin informazioa jasota, Udalbatza Osoari jakinaraziko zaio, oneste aldera".*

[…]

Bertaratuek aho batez erabaki dute aurreko proposamena onestea.

**7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZAROAREN 25a, "EMAKUMEARENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA" DELA ETA, EUDELEK IGORRITAKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA.**

EUDELek azaroaren 25eko EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA erakunde adierazpenaren eredua igorri du, eta irakurri egin dute Udalbatza Osoan aztertzeko:

Azaroaren 25a "Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna" da. Hori dela eta, Sopuertako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du, indarkeria sexistaren agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso -zuzenean edo zeharka- emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketen egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.

Indarkeria mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa

egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurten ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik programaren markoan.

Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun Sailen gidaritzapean, eta Gazteria Sailetik ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren markoan, betiere, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabekuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoa zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.

Beldur Barik estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturaltzat hartuko ez dituen gizartea eratuz joango da.

Hori guztia dela eta, Sopuertako Udalak konpromisoa hartu du:

3. Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.
4. Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal-politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.

Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten dizue, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, “Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna” dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Bertaratuek aho batez erabaki dute adierazpenaren testua onestea.

**8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDALBILTZAREKIN SINATU BEHAR DEN HITZARMENA.**

UDALBILTZA partzuergoarekin sinatu beharreko hitzarmenaren eredua aurkeztu da, hain zuzen, Udalbiltza Partzuergoaren estatutuko helburuen baitan dauden jarduerei

bultzada emateko. Horretarako, Sopuertako Udalak 6000 €-ko ekarpena egin behar du, 2014ko aurrekontuaren kargura, hitzarmena sinatzeko.

[…]

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz erabaki da 2015erako hitzarmena onestea. Hala, alkateari baimena emango zaio Udalbiltzarekin eginiko hitzarmena sinatzeko.

**9.- GAURKO EMAKUMEAK IZENEKO EMAKUMEEN ELKARTEAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA JUDIZIOZ KANPO AITORTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Alkate-udalburuak Udalbatza Osoari proposatu dio eguneko aztergaien zerrendan dagoen esaldia aldatzea (barkamena eskatu du akatsarengatik) eta horren ordez honako hau jartzea:

> **9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, GAURKO EMAKUMEAK ELKARTEARI ORDAINTZEKO BETEBEHARRA JUDIZIOZ KANPO AITORTZEA.**

[…]

Korporazio osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak erabaki du onestea alkateak Udalbatza Osoan aurkeztutako proposamena.

**KONTROLA.**

**10.- GAUR EGUN EBAZTEKO DAUDEN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ERREKURTSOEN BERRI EMATEA. ERREKURTSO HORIEK UDALAREN AURKA JARRI DIRA.**

[…]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

**11.- AZKEN BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

**[…]**

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

**MOZIOAK**

**12.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, EDURNE SANTAMARINA ANDREAK BILDU TALDEAREN ORDEZKARI GISA AURKEZTUTAKO MOZIOA,**

**HAIN ZUZEN, SOPUERTAN HERRI IKASTETXEA EDUKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKOA.**

Puntuarekin hasteko, idazkari kontu-hartzaileak osorik irakurri du mozioaren testua:

“SOPUERTAN HERRI IKASTETXEA EDUKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO MOZIOA:

2011z geroztik, Sopuertako Udaleko gurasoek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen diote “La Baluga” eskolako Lehen Hezkuntzako etapa sare publikoan sartzeko.

Urte hauetan guztietan etengabekoak izan dira irtenbideren bat bilatzeko asmoz egin diren bilerak eta lana. Zentzu horretan, gurasoek beti izan dute Sopuertako Udalaren laguntza eta lankidetza.

2014-2015 ikasturterako ikasleek izena emateko epea ireki zenean, zenbait gurasok La Baluga aukeratu zuten euren seme-alabak inskribatzeko, hain zuzen, Lehen Hezkuntza ikastetxe horretan egin zezaten. Bada, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen diote euren eskaera kontuan har dezatela.

Sopuertako La Baluga ikastetxeak espazio nahikoa du eta egokituta dago. Gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak bere garaian inbertsio handia egin zuten eraikin horretan. Adierazi behar da ikastetxe horretan Haur Hezkuntza ematen dela eta ikastetxeak, era berean, Lehen Hezkuntza emateko beharrezkoak diren baliabideak dituela.

Hala ere, hilabeteak joan, hilabeteak etorri, Hezkuntza Sailak ez du inolako irtenbiderik eman, eta Sopuertako La Baluga ikastetxean Lehen Hezkuntzaren eskaintza publikoa bermatu gabe jarraitzen du.

Bizkaiko Gotzaintza etengabe oztopoak jartzen ari da eskaera honen aurrean; praktikan, erabaki batera iristeko aukera oztopatzen ari da, eta familia askori dagokien eskubidea ukatzen zaie.

Bada, Sopuertan sortutako egoeraren larritasun horrek eragina izan du, eta kaltetutako guraso horietako bi erabaki zail bat hartzera eraman ditu, hau da, gose-greba egitera, kalitatezko hezkuntza publikoa izateko dituzten legezko eskubideak exijitzeko. Greba horri amaiera eman diote, Hezkuntza Sailak kaltetutako familiekin elkarrizketa-bidea irekitzeko hartutako konpromisoaren ondorioz.

Sopuertak eskola publikoan eskolatzeko eskubidea exijitzen du. Hori besterik ez.

Horregatik guztiagatik, honako MOZIO hau aurkezten dugu:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu Sopuertan eskola publikoan Lehen Hezkuntzako zikloan eskolatzeko eskubidea berma dezala. Ikasturte honetarako, eta aldi baterako, La Baluga ikastetxean Zallako Mimetiz ikastetxetik lekualdatutako gela bat ireki dezala eskaera egin duten ikasle guztientzat, eta hilabete horietan alde guztien artean erabaki bat bila dezatela Sopuertako beharrizanak asebeteko dituen irtenbide bat bilatzeko.

2.- Bizkaiko Gotzaintzari exijitzen diogu eskola publikoa aukeratu duten familien erabakia errespeta dezala eta ez jartzeko oztopo gehiago euren eskubideak baliatzeko.”

[…]

Korporazio osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak honako hau erabaki du:

Bildu taldeko ordezkari Edurne Santamarina andreak aurkeztutako mozioa onestea.

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu Sopuertan eskola publikoan Lehen Hezkuntzako zikloan eskolatzeko eskubidea berma dezala. Ikasturte honetarako, eta aldi baterako, La Baluga ikastetxean Zallako Mimetiz ikastetxetik lekualdatutako gela bat ireki dezala eskaera egin duten ikasle guztientzat, eta hilabete horietan alde guztien artean erabaki bat bila dezatela Sopuertako beharrizanak asebeteko dituen irtenbide bat bilatzeko.

2.- Bizkaiko Gotzaintzari exijitzen diogu eskola publikoa aukeratu duten familien erabakia errespeta dezala eta ez jartzeko oztopo gehiago euren eskubideak baliatzeko.”

Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Gotzaintzari.

**GALDERAK ETA ESKAERAK.**

**13.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**